

KOSTUEN EGITURA

Enpresa guztietan bezala, guk ere **kostuak** izango ditugu. Hauen barnean bi mota bereiziko dira: finkoak eta aldakorrak; baina gure kasuan, finkoak baino gehiago izango dira aldakorrak.



Langileek jasoko duten **soldata** ez da dirua izango, izan ere, unibertsitateko ikasleak izanik ideia egokia iruditu zaigu haiek kredituen bidez ordaintzea. Hortaz, horien soldaten kudeaketa ez da gure esku egongo, Euska Herriko Unibertsitatearen esku baizik, eta langileen lan orduen araberakoa izango da, hau da, geroz eta ordu gehiago eskaini lanari, orduan eta kreditu gehiago jasoko dituzte. Gure **soldatei dagokienez**, gutako bakoitzak 1500€ko soldata jasoko du hilabetean; izan ere, ikasleak izanik, nahikoa izango da gure beharrak asetzeko.

Gure langileak EHUK dituen unibertsitateetan arituko dira lanean Bilbon, Gasteizen eta Donostian, alegia. Hori dela eta, ez dugu **alokairurik** ordaindu beharko eta hortaz, **argindarra** eta **internetak** dakarten kostuak ere EHUn esku geratuko dira. Honekin batera, psikologoak ere ez dira kostu bat izango, kontuan hartuta familiko kideak direla eta laguntza bat eskaini digutela musu-truk.

“Oihu” zerbitzuaren parte izango diren langileak eroso sentitu daitezten eta, bide batez, haien laborea eskertzeko, egunero mokadu jateko zerbait eskainiko zaie, hala nola, gailetak, gozokiak... glutenik gabekoak badaezpada. Hau soberan geraturiko irabazietatik hartuko dugu. Gainera, lan gehiena gauez izango denez, oso garrantzitsua iruditzen zaigu hidrataturik eta esna mantentzea gure langileak; hortaz, unibertsitateak duen **venting kafe-makinaz** baliatuko gara eta urari dagokionez, **Aquaservice** zerbitzua erabiliko dugu. Azkeneko hau gure kostuen barnean egongo da, zeina 80 litro (20litroko 4 bidoi), gehi banagailua, mantentze-lanak, etab., 32,90€ gehi BEZa izango den; beraz, 3 lokaletarako behar ditugunez, 133€ko kostua izango da hilabetean. Baina hau ez da hilabeteroko gastu bat izango, hilabetero lokal bakoitzean bidoi bakarra kontsumituko dugula kalkulatu, lau hilabetero deitu beharko diogu zerbitzuari bidoi berriak ekartzeko, beraz, lehenengo, bosgarren, eta bederatzigarren hilabeteetan soilik izango dugu kostua hau, oraingoz behintzat.

Publizitatean 700€-ko inbertsioa egingo dugu lehenengo hilabeteetan, kamisetak, boligrafoak, pegatinak, oihalezkoa poltsak, kartelak, etab. egiteko, izan ere, hauek egiteko dirua behar dugu, eta publizitatea nahitaezkoa izango da “Oihu” enpresari ahotsa eman ahal izateko eta jendeak ezagutu ahal izateko. Hala ere, gainontzeko hilabeteetan publizitatea egiteari ez diogu utziko, baina ez dugu lehenengo hilabeteetan bezalako inbertsioa egingo, 400€-koa baizik, gainerako hilabeteetan jada jende gehiagok izango duelako gure berri, eta beraz, ez dugu horrenbesteko kamiseta, kartel, etab. egin beharko. Gainera, Eusko Jaurlaritzarekin aliantza egingo dugunez, eta hauek ETB manejatzen dutenez, bertako publizitatea dohainik aterako zaigu.

Bestetik, EHUn izango dugun lokal bakoitzean, hau da, Donostia, Bilbo eta Gasteizeko Unibertsitateko lokal bakoitzean, bost **telefono** jarriko ditugu: 15 guztira. Hauek ahalik eta arruntenak izango dira, eta Euskaltelek, telefono asko direnez, deskontu bat egingo digu 225€ren truke eskuratuko ditugularik. Hala ere, telefonoen eroste kostua

hasieran bakarrik ordaindu beharko genuke, behin erosita horiekin jardungo baitugu lanean eta huen tarifa hilean 15€-koa izango da.

Ondorioz, gure proiektuari hasiera emateko kostuak, gutxi gora behera, 7073€koak izango dira. Baina kostu hauek lehenengo hilabetekoak besterik ez dira izango. Ezin dugu ahaztu ikasleak garela eta sortuko zaizkigun kostu guztiekin aurrera jarraitzea oso zaila egingo zaigula. Gure kostuak diru laguntzekin estaliko ditugu, eta hauek **Eusko Jaurlaritzak ordainduko** dizkigu; izan ere, era honetara, kostu guztiak haien esku geratuko dira proiektuari babes bat emateko: horrela gobernuak lagunduta, proiektuaren iraupena ziurtatuko genuke eta hori oso garrantzitsua izango litzateke. Hau horrela izanda ere, hauek hasieran egindako kalkuluak besterik ez dira eta aldaketak egon daitezke, baina hau ez da arazo bat izango: kostuak igo edo jaitsiz gero, Eusko Jaurlaritzak berdin berdin ordainduko digu.



KOSTUAK	1.Hilabetean	Hilabetero (gainontzekoak)	Urtean
Telefono finakoak	225€ (15€ bakoitzak)	---	---
Telefono tarifa	15€	15€	180€
Publizitatea	700€	400€	5100€
Soldata	6000€ (1500€ bakoitzak)	6000€	72000€
Aquaservice	133€ (32,90€ + BEZa lokal bakoitzean)	--- (lau hilabetero deituko dugu zerbitzura, beraz, 1, 4 eta 8 hilabeteetan izango da kostu bat)	399€
GUZTIRA	7073€	6415€ (Aquaservice kontuan hartu gabe)	77679€

HILABETE BAKOITZEKO KOSTUAK						
HILABETEAK	1	2	3	4	5	6
Kostuak	7073€	6415€	6415€	6415€	6548€	6415€

HILABETE BAKOITZEKO KOSTUAK						
HILABETEAK	7	8	9	10	11	12
Kostuak	6415€	6415€	6548€	6415€	6415€	6415€

